# nork?

Guk geuk. Nork bestela! Saretze eta aktibazio lana egiteko, Eibarren **AKEBAI BATZARRA** sortuko dugu, non eibartar guztiei emango zaien parte-hartzeko aukera. Bertako kide izango dira egitasmo honekin bat egiten duten herritar guztiak, izan maila pertsonalean edota elkarte/erakunde baten ordezkari gisa. Guztira 80-100 **AKEKIDE** inguru izan nahiko genituzke hasiera honetan; gerora, ahalik eta gehien.

**Batzarra** parte-hartzailea izango da, konfiantza giroa sustatuko duena eta kideek bere sentituko dutena. Bere funtzioa: batetik, Euskararen plan estrategikoan zehaztutakoak modu sortzaile eta ezberdinean gizarteratzea eta, bestetik, plan horren jarraipena egitea eta iritzi eta proposamenak ematea.

AKEBAI egitasmoak, batzar horretaz gain, alor ezberdinetako **MAHAIAK** ere izango ditu. Hasiera batean lehentasunezko gisa aurreikusten dira lau hauek: familia, hezkuntza, kirola eta kultura. Hortik aurrera, nahi beste mahai sortuko dira, Kideek zehaztuko dituzten lehentasunen arabera. Arlokako mahaiez gain, **Komunikazio Mahai** bat ere egongo da, egitasmoaren alderdi komunikatiboa landuko duena, kanpora begira baina baita barrura begira ere.

Bukatzeko, zuzendaritza-lana egiteko, **AKEBAI EKIPOA** sortuko dugu. Plana martxan jartzeaz eta planaren jarraipenaz eta doiketaz arduratuko da. Urteko kudeaketa-planaren diseinua eta jarraipena egitea izango du eginkizun nagusia.

Gazte eta haurren eremua euskararen arnasgune izateko agenteak SARETZEA eta AKTIBATZEA

Izen bat. Izen bat bihar dogu. Izen on bat.

Entzun bezin azkar, gure nahixen barri emongo dabena. Gogoratzeko erreza, eta gure asmuak zeintzuk diran azaltzeko balioko deskuna.

Izan deila ilusionantia eta izan deila positibua; izan deila guztiona eta bateratzailia.

Izan deila, gaiñera, ausarta, barrixa eta apurtzailia.

Iñork espero ez dabena. Eta erronka puntutxo bat be adieraziko dabena.

Horixe errezetia. Dana nahi dogu!

Eta ez da erreza izango berba egokixa aukeratzia. Baina lortuko dogu.

A ke bai!

Eibarren
AKEBAI



Eibar, bere orografiatik hasita, herri zaila da, zuloan eta aldapaz inguratua dago, baina, hala ere, beti lortu du burua beste askoren gainetik ateratzea. Lehenengo armak, gero bizikletak, ondoren josteko makinak, orain merkataritza, zerbitzuak, turismoa, teknologia, futbola... Hain herri txikian eta zulo honetan. Eta euskara zer? Ez dugu bururik aterako? Bai horixe! Zaila da eta horrek motibatu egin behar gaitu. Horra hor erronka: Eibar euskalduna/goa denontzat. Eibarko herriaren identitatean irudimena, indarra, kemena, modernotasuna, dotorezia eta aurrera egiteko harrotasuna daude. Horra hor beste erronka bat: euskara ere gure herriaren nortasun-marken artean sartzea. Horri ere helduko diogu; eta lortuko dugu.
Eibarrera kanpotik datorrena ere eibartar sentitzen da denbora gutxira, harro sentitzen da eibartarra dela esateaz.
Euskara identitate horren parte izatea nahi dugu, gizaldiz gizaldi izan den moduan. Periferiatik erdigunera etorri behar gara.

## nondik gatoz

Eibar orain dela 100 urte 10.000 biztanle inguruko herria zen. Ia denek euskaraz jarduten zuten, berez, natural. Askok gaztelera ere jakingo zuten, baina euskararen herria zen. Euskara berezkoa eta naturala.

Milurteko berria, Eibarren 27.000 biztanle inguru. Zerbitzu eta merkataritza giroko hiria. Erdiak euskaradunak, baina ia denek gaztelaniaz jarduten dute natural, berez. Askok euskara jakingo dute, baina gazteleraren herria da. Euskararen berezko lekua hartzen du, gaztelera berezko egiten da.

Une honetan badugu pozteko eta larritzeko daturik. Egia da, azken 25 urteotan plangintza, programa, ekimen eta politika ugari egin diren arren, euskara-erabilera ez dela hazi Eibarren eta gazteen artean gutxi erabiltzen dela; baina, bestalde, azkeneko 25 urteotan egindako lan guztiari esker atzera ere ez dugu egin, herriko ia haur guztiek D ereduan ikasten dute eta herritarren artean erabat zabala da euskararen aldeko jarrera. Eibarrek badu potentziala eta ahalmena berriro ere herri euskalduna izateko.

## nora goaz?

Eibarko Udalak “Eibarko Hiriaren Euskararen Plan Estrategikoa” onartu zuen 2016-2025 epealdirako. Plan Estrategiko hori 50 herritarren parte-hartzearekin diseinatu zen, EMUNen gidaritzapean. 2016 amaieran adostu ziren oinarriak eta 2017an jarriko da martxan.

Plan horren helburu nagusia da, Eibarko herritar, eragile, elkarte eta erakundeak aktibatzea eta saretzea, 10 urteko epean Eibar euskaldunago bat izan dezagun, fokua, batez ere, Eibarko gazte eta haurren eremuan jarrita. Beharleku horretan, eibartar guztiok izan beharko dugu protagonista. Udalak egitasmo hau 10 urtez sustatzeko konpromisoa hartu du. Aukera historiko hori aprobetxatu behar dugu, guztiok bat egin, eta erronka horri eutsiz. Langintza horretan buru belarri inplikatu beharko gara, gehienbat haur eta gazte giroko eragileak. Eta euskaraz funtzionatuko duten erabilera-eremuak sortzea izango da datozen urteetarako iparra, hiztunak motibatzeko, irabazteko eta trinkotzeko.

Helburuak lortzeko, egitasmo ireki eta parte-hartzaile bat sortu nahi dugu, sendoa bezain zabala, berria, ilusionantea eta anbiziosoa, erronka puntu bat ere izango duena eta aukera historiko hori aprobetxatzeko aukera emango diguna. Denon ahaleginak eta indarrak batzeko unea da, helburu bakar batekin: gure herria euskaldunago egitea, hain zuzen ere. Ondo antolatzea izango da garrantzitsuena, talde-lana ezinbesteko bilakatuz.

## nola?

Gure helburuak lortzeko, diskurtso bat eta “marka” bat sortu behar ditugu. Horretarako, ezinbestekoa izango da gure esperientziaz baliatzea. Eibarko herritarrek dagoeneko badute euskarari eta euskal munduari buruzko aurreiritzi bat. Aurreiritzi horien alderdi positiboei eutsi egin beharko diegu, eta hain positiboak ez direnak iraultzen saiatu beharko gara. Gainera, markaren eraikuntzan, euskararekin zuzenean lotzen ez diren beste ezaugarri batzuk ere sartzea komeni zaigu, besteak beste, eibartar sentitzearen harrotasunaren aldarrikapena, edota herri hobea eraikitzeko aukera dugula, herriko eragile sozialak saretu eta aktibatzea onuragarria izango baita, berez, herri osoarentzat.

### ILUSIOA
- Proiektu ilusionantea eta anbiziosoa izango da.
- 10 urteko plangintza sendo bat da Eibar euskalduntzeko. Une historiko baten aurrean gaude.
- Kideei konpromiso bakarra eskatuko diegu: espiritu positibo eta eraikitzailea izan dezatela, besterik ez.
- Proiektu berri bat da, eta proiektu berri horretarako aurpegi “berriak” beharko ditugu.

### PARTE-HARTZEA ETA ELKARLANA
- Proiektua eibartar guztiona izango da, zabala eta anitza. Ez da pertsona eta ideia bakar bat ere baztertuko.
- Talde-lana eta ekipo filosofia izango dira oinarria.
- Giro ona sustatuko dugu; proiektuak ere jai giroa izango du beti iparrorratz.
- Herrikideekin harremanak estutzeko aukera emango du.
- Konfiantza giroan eta gardentasun osoz egingo dugu.

### ERREKONOZIMENDUA / LIDERGOA
- Zure arloan eragin ahalko duzu, arduratzen zaituen arlo horretan.
- Herrian aktiboak eta eragileak diren pertsonen errekonozimendua sustatu nahi dugu.

### HARROTASUNA / HERRI IZAERA INDARTZEA
- Eibarren izaeraren parte izan da beti euskara; berezko hizkuntza du, eta galdutako lekua berreskuratu behar du. Ez dezagun ahaztu, ez dezagun galdu.
- Eibartarrok beti harro egon gara geure hizkeraz.

### EUSKARAREKIN GUZTIOK IRABAZLE
- Euskara eremu guztietan indartuta guztiok irabazten dugu, ez du inork galtzen.
- Zerbitzua euskaraz eskaintzea zerbitzuaren kalitatea areagotzea da. Euskara dakigunok balio bat dugu, plus bat, erabil dezagun.
- Euskara gure herri nortasunaren elementu garrantzitsua da, bereziago egiten gaituena. Eutsi diezaiogun!